



Txosten hau sakonki egiaztatu du AENORek, GRI Standards eta 11/2018 legea, abenduaren 28koa, informazio ez-finantzarioari eta dibertsitateari buruzkoa, ezartzearen bidez.

# Jasangarritasuna

2021EKO TXOSTENAREN LABURPENA



**LABORAL**  
kutxa





## Bada beste modu bat

Banku-jarduera gauzatzeko beste modu bat du LABORAL Kutxak, lankidetzan eta gure gizartearekiko konpromisoan oinarritua. Bezero guztiak asebetetzea eta ingurunean aberastasuna eta enplegua sortzea dira gure helburuak.

Gurea banka kooperatiboa da, eta, gidari dituen balioei jarraituz, guztion interesa lehenesten dugu norberaren interesaren aurrean, erabakiak parte-hartzean oinarrituz hartzen ditugularik eta gure mozkinak gizartean inbertitzen ditugularik.






# 1. Gure konpromisoa gizartearekin



# Mozkinen banaketa

Zer egiten dugu gure mozkinekin?

- **% 25 gizartera doa.** Funts horiekin, proiektuak finantzatzen dira (kooperatiboak, kulturalak, kiroletakoak, prestakuntzakoak, ikerketakoak...).
- **Beste % 25 bazkideen artean banatzen da,** kapital gisa.
- **Gainerako % 50 erreserbetara bideratzen da,** kooperatibaren etorkizuna eta kaudimena ziurtatzeko.



# Zergak

Gainera, LABORAL Kutxak jarduera gauzatzen duen lurraldeetan betetzen ditu zerga-obligazioak. Horrela, zerbitzu publikoei eusten eta gizartea garatzen laguntzen du.

2021ean, 33,8 milioi euro ordaindu dira zerga eta tasetan.

> 33,8 M€

Zergak eta tasak





## Gaztenpresa Fundazioa

Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da **Gaztenpresa**. LABORAL Kutxaren gizarte-lanean txertatuta dago, eta **enpresak eratuz enplegua sortu eta sendotuko duten ekimenak eta ekintzak sustatzea** du helburu.

2021ean, Gaztenpresak 547 lanpostu sortu dituzten 278 negozio eta enpresa abian jartzen lagundu du.

> 547

lanpostu

# Gizartearekin arduratsuak diren produktuak, GKE-ei laguntzeko



Affinity  
TXARTELAK  
48.924 €



Medicus Mundira,  
Caritasera eta  
Ikastolen Elkartera  
bideratutako  
zenbatekoa, Affinity  
txartelen bidez.



LK Konpromiso  
INBERTSIO-FUNTSA  
143.404,86 €



Inbertsioak aukeratzeko orduan,  
ingurumenari, gizarteari eta  
korporazioaren gobernantza onari  
lotutako irizpideak hartzen ditu kontuan.  
Era berean, gestio-komisioen zati bat  
Medicus Mundira, Mundukidera eta/edo  
Caritasera bideratzen du.

# Multikanalitatea

Gure iritziz, digitalizazioa bezeroekin komunikatzeko eta haien finantzak eta aseguruak errazago kudeatzeko beste bitarteko bat da.

Estrategia multikanalean, bulegoak eta kontaktu pertsonalak harremanetarako bide nagusia izaten jarraitzen dute.



Eragiketak	2020	2021
Jasotako deiak	288.985	331.077
Egindako deiak	24.113	42.043
Whatsappak	57.358	49.438*
Online Bankako txata (2020-10-22an abian jarria)	9.592	44.136
Txartelen iruzurrari buruzko alertak	9.302	18.388

\* Kontabilizatzeko irizpidea aldatu egin da: 2021ean ez dira aintzat hartu larunbat arratsaldeak eta igandez jasotakoak.



# Tokiko banka

Presentzia dugun lekuan bertan erosten ditugu ondasun eta zerbitzu gehienak. Zehazki:

> % 94,2

Tokiko enpresei  
erositako

**ONDASUN ETA  
ZERBITZUAK**

> % 43

Gure Zerbitzu Zentraletatik  
100 kilometrora baino gutxiagora  
(EAEn) erositako

**ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK**






## 2. Gobernu korporatiboa




# Kooperatiba bat gara

LABORAL Kutxaren kapitala bazkide guztiena eta elkartutako kooperatibena da. Bazkide horiek erakundearen erabakietan hartzen dute parte, erantzukizunez eta epe luzerako ikuspegiarekin.



- Lan-bazkideak
- Bezeroak - Pertsona fisikoak
- Elkartutako kooperatibak
- Bazkide laguntzaileak (erretiratuak)





## Pertsonak

LABORAL Kutxan, Entitateko bazkideak gara zerbitzua ematen dizugunak, proiektuarekin bat egin eta hartan sinesten dugularik. Beraz, bezeroari zerbitzurik onena ematen inplikatzeko gara.


Gure bezeroak asebeteta izatea da gure enpresa-proiektuaren bermerik onena etorkizunari begira.



# Berdintasuna


1997tik lan egiten dugu berdintasunaren alde, eta dagoeneko gure 4. Plana ari gara jorratzen.

## LABORAL Kutxako bazkideak




■ Emakumeak ■ Gizonak

## Emakumeak administrazio-organo gorenean



LABORAL Kutxa



IBEX 35eko enpresak

Iturria: RRHH Digital


■ Emakumeak ■ Gizonak

# Soldata-arrakala


Lanpostu berdinean soldata bera jasotzen dugu langile guztiok. Gure kasuan, erantzukizun handiko lanpostuetan oraindik gizon gehiago daude, eta hori da **gizonen**

**eta emakumeen** batez besteko **ordainsarian** dagoen aldearen arrazoia. Hala ere, alderdi hori ere lantzen ari gara.

## Batez besteko lan-indizearen aldea



## Emakumeak erantzukizunik handieneko lanpostuetan





LABORAL Kutxan gehien irabazten duen pertsonaren ordainsaria plantilla osoaren batez besteko ordainsaria baino 4,76 bider handiagoa da.



Zenbat gehiago kobratzen dute exekutiboek plantillaren batez besteko soldatarekin alderatuta?

- LABORAL Kutxa
- IBEX 35

Iturria: Heraldo

# Osasun-plana



2021ean, laneko segurtasun- eta osasun-sistemaren kudeaketari buruzko **ISO 45001 ziurtagiria** lortu dugu.



**Zainduz Osasun Plana** ere badugu, osasun fisikoa eta emozionala zaintzeko, eta langileen artean bizi-ohitura osasungarriak eta jasangarriak sustatzeko.



Esaterako, 2021ean, **LABORAL Bybike** programa jarri dugu martxan. Sari ekonomikoekin bultzatzen du lanera bizikletaz joatea.







### 3. Ingurumenaren babesa



2021ean 20 urte bete dira LABORAL  
Kutxak ISO 14001 ingurumen-ziurtagiria  
lortu zuenetik.

2001etik aurrera, ingurumena zaintzea eta  
jardueraren zuzeneko eragina murriztea  
bermatzen duen ziurtagiri horri eutsi diogu.





# Kontsumoak

Gure jarduerak ingurumenean duen zuzeneko inpaktua txikitzen ahalegintzen gara.



KONTSUMOAK	2017	2018	2019	2020	2021
Karbono-aztarna (CO2 tonatan)	5.613	5.293	4.849	822	1.154*
Elektrizitate-kontsumoa (Kw/h)	13.891.322	13.277.248	12.915.786	11.450.964	11.432.660

\* 2021eko igoera pandemiaren ondoren mugikortasuna berreskuratzearen ondorio da.

# Jasangarritasuna eta klima-aldaketa

2021ean, lan handia egin da LABORAL Kutxaren finantza- eta aseguru-jarduera eraldatzeko, eredu bidezkoago eta jasangarriago bat lortze aldera.

- Finantza jasangarrien estrategia bat, hura ezartzeko ibilbide-orria eta gauzatzeko barne-gobernantza zehaztea.
- Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak ezartzea. Printzipio horiek sortu zituzten bankuetako bat izan zen LABORAL Kutxa.
- Jarduera jasangarrien taxonomia ezartzea.
- Task Force on Climate-Related Financial Disclosures-en (TCFD) gomendioen araberako lehen txostena egitea. TCFDan, Entitateak aurre egin beharreko klima-arriskuak zein diren eta nola aurre egin behar dien deskribatzen da.
- LABORAL Kutxa Taldeko jasangarritasun-politika idaztea.







## 4. Nabarmendutako zifrak



Aurreko orrialdeetan azaldutako guztiak ez du eragozten LABORAL Kutxa enpresa-proiektu bikaina ere izatea.

## Entitatearen zifra nagusiak



Bateratuak 2021-12-31n

# Gure bulegoen banaketa geografikoa







**LABORAL**  
kutxa